


Ariketa praktikoa:

JavaScript erabiliz dinamikoki alda daiteke <div> etiketa baten barruan zehazten den irudia. Adibidez, irudian dugun webgunearen kasuan, errezetaren irudia alda dezakegu:



Horretarako, honako kodea erabiliko dugu:

```
let irudia = document.getElementById("irudia")
irudia.style.backgroundImage = "url(irudiak/irudiberria.jpg)"
```



Ariketa honetan eskatzen da irudi hori 5 segundoro aldatzea. Sei irudiz osatutako array batetik hartuko dugu hurrengo irudia. Alegia, gai honetan ikusi dugun webgunean oinarrituta, beharrezkoa den JavaScript kodea programatu irudiak.zip¹ fitxategitik hartutako irudiak sekuentzian bistaratzeko (5 segundoro). Erabiltzaileak irudiaren gainean sakatzen badu, irudien animazioa eten egin behar da. Irudiaren gainean ez badu sakatzen, 6 irudiaren ondoren berriro lehenengoa bistaratuko da, sekuentzia jarraituz (ikus: <http://www.youtube.com/watch?v=aaoNMmnfGD4>)

Ariketa hau egiteko, honako fitxategiak jaitsi beharko dituzu:

Webgunearen txantiloia

https://www.ikasten.io/html5/ariketak/fitxategiak/06_irudiak.zip

https://www.ikasten.io/html5/ariketak/fitxategiak/06_txantiloia.zip

¹ Irudien iturriak, denak CC-by lizentziapean: <http://www.flickr.com/photos/pleeker/2365710724/>, <http://www.flickr.com/photos/ramnath1971/12053202563/>, <http://www.flickr.com/photos/jijis008/2153325033/>, <http://www.flickr.com/photos/elle-epp/4436696531/>, <http://www.flickr.com/photos/toastwarrior/5340757703/>, <http://www.flickr.com/photos/klash/6055375778/>